

## **KOSTUEN EGITURA**

Funtsezko baliabideei aurre egiteko dira gure enpresen kostua zenbatekoa izan daitekeen adieraziko luketen kopuruak. Enpresak **lokal** bat behar luke eta partekatutako langune batean egotea litzateke ahalik eta diru gutxien gastatzeko bidea. Horretarako coworking bidea da aukeratariko bat eta inguruan eibarcoworking guneko tarifei erreparatuta hilean gutxi gorabehera 50 euroko kuota bat ordaindu beharko genuke. **Argindarra, ura eta interneterako konexioa** kuota horren baitan legoke. Horrez gain, **biltegi** gisa baliatzeko taldekideren baten garajea edo familiako **lokalen** bat baliatuko genuke hasteko, baina garaje itxi batek hileko 100 euroko alokairu tarifa izan dezake gutxienez Elgoibarren.

**Sakelako telefono eta ordenagailu** bana beharrezkotzat jo ditugu bulegorako, nahiz eta gero norberak gureak ere baliatu. Oinarrizko baliabideak izanik 1.500 euro bideratu ditzakegu horietarako.

Baina diru kostu nagusia **makinen** beraren **fabrikaziorako** izango litzateke **materiala eta langintza** ordaindu behar direlako guk makina ezin dezakegulako egin.

Ondoren, joanean-joanean aurrera egin ahala ikusiko dugu hasierako kostu horiek eta irabaziak bat ote datozen eta horren arabera moldatu beharko genuke dena.